

# "IZARREKO" - ren SOZIALISMOA

Labur izan nahi nuke.

Baina « IZARREKO »-k (18. Zabal, 33/36) leporatu dizkidan « hiru tesien » gorabeherak azaltzeko, liburu oso bat izkiria baliteke ere, gaingiroki bederen erantzutekotan, nahi-ta-ez beharko ditut lerro batzuk ; eta, beharbada, luzeegi gertatuko.

« Izarreko »-ren ustez « burges tipia » naiz ; ene sozialismoa « alemaniar eta laboristen sozialismoa da » ; ene kezka bakarra « marxismoa garaile irteten bada, nola geldituko diren burges eta burges-tipien metodo hauk » ; « sikosozio-  
logia », « estrukturalismoa », eta « zientzien interdiziplina » ; « euskal burge-  
siaren intereseak « ezkerretik » defendatu nahi omen ditut ; ene « burukomina »  
« gauchistak » omen dira, eta abar. Hobe litzateke, bestalde, ni hizkuntzaren  
arazoez arduratzea, « ondo bait dihardu hemen », eta politika saila oso utzi...  
Eta abar, eta abar. Lore mordo ederra ! Eta, denaz gain, esperantzazko azken  
zirrikitua hestekotan nunbait : « zure mezua inork ez du adituko ». Egin zuen  
artikulua alferrik oraturik, beraz.

Nori ez lekiokete mingarri horrelakorik irakurtzea ? Niri bederen, aitor dut,  
mingarri izan zait. Baina isiltzea ontzat ematea litekeelakoan, zerbait erantzutea  
erabaki dut. Eta, ahalean, « tesika egitea.

## LEHEN TESIA :

MARXISMOAREN FENOMENOA EUSKAL HERRIAN  
ERLIJIOAREN ONDORIO BAT DA.

EUSKAL MARXISMOAREN SUSTIRIAK

Nik ez dut hori sekula pentsatu.

Ene ustez, frankismoaren urteetan barrena, hiru eragilek bultzatu dute  
marxismoaren gorantz :

KAPITALISMOA  
① Kapitalismoaren zapalketa lotsagabea. Burgesia jaun-da-jabe ibili da  
fazismoari esker, herri zapalduaren lepora egundoko irabazketak eginez. Kapita-

lismoaren sustraia bilatu nahiz, Marx-en gana jo du euskaldun gazteriak (beste edozein herritan bezala). Hots — berriz gauza bera izkiriatur — kapitalismoaren kritikarik zorrotzena Marx-ek egin duenaz gero, ekonomi-sailera ere eramanen abertzaletasuna ezker aldera bultzatzeko, eta gure artean oso zabaldua zegoen liberalismo burges gexaren gezurra konpreni arazteko, marxismoaren hedaera hori oso onuragarria izan zaio Euskal Herriari. Honetaz ez dago dudarik enetzat. Areago esango nuke : kapitalismoaren kontrako iskilu den aldetik, astakeria litzatekeela marxismorik ez ikastearen alde ezer esatea edo izkiriitzea. Marxismoa ERE behar du gaurko Euskal Herriak.

Baina azalpide hori ematea EZ DA INUNDIK ERE ASKI Euskal Herrian ikusten dugun marxismoaren hazkundera ulertarazteko.

2) Abertzaletasunaren kontrako burruka etsian, fazistek berek bultzatu dute marxismoaren zabalketa; beste herrietan gertatu denaren arabera. Marxismoak, etni-arazoa dagoen herrialdeetan (Corsikan azkenekoz), eskuindarren jokia egitera bultzatzen duela behin eta berriz erakutsi duenez gero, marxismoa inperialismoaren iskitluzat ere hazi eta hedatu da. Eta Madrilleren karkulua ez da txarra izan : ikusi besterik ez da zenbat eta zenbat abertzale galdu den sozial-inperialismoaren zerbitzutan : E.S.B.A., M.C.E., L.C.R., O.R.T., P.C.E. ber-bera ahantzi gabe. Mugimendu hauk, kontradizioen mailak garbi ulertuz, bigarren mailako etsaitzat hartu ditu fazismoak Euskal Herrian; eta askoz zanpaketa ahulagoa izan dute beroiek, E.T.A.-k edo gainerako abertzaleek baino.

3) Mendeetan barrena mukurru zeuden euskal apeztegiak hustu dira, komentuak oro hustu dira, elizak berak ere hustu dira, Gizona nekez bizi daiteke « ideologia »-rik gabe, « mitologia »-rik gabe alegia ; bere buruari « sentidu »-rik igarri gabe. Are gutxiago halako batez, gizadiak gupidaturik, Argia ikusi uste eta populua laquntzea erabaki zutenak : apezak, fraileak, serorak eta kristau militantak.

Ez naiz BATERE bitxia ez « orijinala » mundu guztian ikusi den bezala, marxismoak ideologi-hutsune hori bete dezakeela pentsatuz. Mintza bedi Bertrand Russel ene ordez : « Creo que todas las *grandes religiones* del mundo — el budismo, el hinduismo, el cristianismo, el islam y *el comunismo* — son a la vez mentirosas y dañinas ». (Por qué no soy cristiano, 13). Eta erlijioen gonbaraketan haundiena den Mircea Eliadek hau dio : « Tout autre est le cas du communisme marxiste. Laissons de côté la validité philosophique du marxisme et son destin historique. Arrêtons nous à la *structure mythique* du communisme, et au *sens eschatologique* de son succès populaire. Or, quoique l'on pense des vellités scientifiques de Marx, il est évident que l'auteur du « Manifeste Communiste » *repréend et prolonge un des grands mythes eschatologiques* du monde asiatico-méditerranéen, à savoir, le rôle rédempteur du Juste (« l'élú », « l'oïnt », l'innocent, le « messenger », de nos jours le prolétariat), dont les souffrances sont appelées à *changer le statut ontologique* du monde. En effet, la société sans classes de Marx et la disparition conséquente des tensions historiques trouvent leur plus exact précédent dans le *mythe de l'Age d'Or* qui, suivant des traditions multiples, caractérise le commencement et la fin de l'Histoire. Marx a *enrichi ce mythe vénérable* de toute une *idéologie messianique judéo-chrétienne*. » (Mythes, rêves et mystères, 24).

Marxismo ideologikoa erlijio berri gisa agertzen zaio fisisofo askori ; ez niri bakarrik.

Apezak, fraileak, serorak eta kristau militantak, horregatik, trumilka, ia batera, marxista bilakatu dira : eta lehenko fededun gartsuenak, gaur marxistarik dogmatikoenak dira, lzen mordo bat emango nuke aisa ; baina ez naiz horretara iritsiko. Aski du irakurleak bere inourura begiratzea. Eta, bestaldera : lehen Fedeari buruz hotz zirenak, gaur marxismoari buruz ere uzkur daude, hotz, agnostiko. Herrien mailan berdin : katolikoan artean komunista qehiago dago protestanteen artean baino. Kristautasunak eta marxismoak, ideologi diren aldetik, egitura berbera baitute ; eta, zernahi esanagatik ere, elkarren trukagarri gertatzen baitira usu, oso usu.

Euskal Herrian modan dagoen marxismoa, bestalde, ideoloaikoa dela berehala erreparatzen da. Ez dago gure errealitatean funtsaturik, liburu sakratuetan aurkiturik baizik.

Euskal Herrian, esate baterako, nazio-arazo latza dago, nabarmen, ezin indartsuago, gero eta sakonagoa. Bidezko litzatekeenez, nazio-arazo bizi horren ulertu-beharra izan balitz eragilea, Proudhon topatu genukeen gidari, Memmi, Connolly, Sartre, Otto Bauer bera; alegia, nazio-arazoa funtsezkotzat daukaten sozialistak. Alta, Marx eta Engels hatxematen ditugu gidari, Rosa Luxemburg eta Trotsky ere ez gutxitan; alegia, Euskal Herriko *arazo nagusia* murrizten, ukatzen, nahasten eta mila eratarata txikitzen eta lardaskatzen dutenak. Hitz batez: marxismo hori ez du gu geure arazoan teorigintzan hatxeman, *sozial-inperialisten* bitartez baizik; hain zuzen ere, hauek gu desbideratzeko errun dituzten paperkeria nabarmenetan.

Gure herrian, era berean, hizkuntza-arazo latza dugu; eta gero eta azkar-kiago senditzen da euskaltzaletasunaren goraldia. Ados dira denak, bestalde, giza-zientzietan lehena eta gidaria Hizkuntza-Jakintza dela. Ba dirudi, horretara, maila guztietan sortu den estrukturalismoa ikusi behar genukeela hausnarturik: Saussure, Hjelmslev, Martinet, Lacan, Foucault, Derrida, Benoist. Ez horrelakorik. « Izarreko » bera lekuko: hori guztia ezer ez zaio, « burgeskeria » ez bada! Schaff marxista bera ez da gure artean ezagutzen, P.C. ofizialarekin gaizki moldatzen baita; eta aipatu ere ez. Croce, Russel, Cassirer aipatu ere ez dira egiten. Marx beharbada... Hots, joxe Azurmendik erakutsia duenez, hizkuntza-arazoa dagoen herri batetan, ezer gutxi lagun eta argi dezake Marx-ek.

Kolonialismoaren arazoetan, eta antzekoetan (gutxiengoak, zapal dutako herri-mordoak) izen bat agertzen da gailen Sartre-ren ustez: Albert Memmi. Nola ez da gure artean ezagunago? Nik azalpen bat emango dut: Memmi ez da marxista. Eta judua da gainera!

Eta marxismoaren hildotik beretik ere, nun dira H. Lefèvre, P. Fougères, P. Daix, Garaudy, Marcuse bera?

Ba dirudi, beraz, berez-lerroa ez dela euskal arazoaren azterketa-kuntzetik pasatzen, ezta marxismo-er marxismo horretatik; oso *ofiziala* den P.C./ez P.C. ebakunetik baizik. Hitz batez, gure artean zabaldu den marxismoa P.C.-tik bide dator, eta ez euskal arazoaren azterketatik.

Europatar federakuntza gure irtenbidea baldin bada, Proudhon inork ez aipatzea harrigarri gertatzen zait. Baina, jakina, Proudhon ez da P.C.-etan ongi estimatzen; eta ez da gaurko kontua: « Ne tombons pas dans la contradiction de votre compatriote Martin Luther, qui, après avoir renversé la théologie catholique, se mit aussitôt, à grand renfort d'excommunications et d'anathèmes, à fonder une théologie protestante... Parce que nous sommes à la tête du mouvement, *ne nous faisons pas les chefs d'une nouvelle intolérance, ne nous posons pas en apôtres d'une nouvelle religion* » (Proudhon-ek Marx-i, 1846-V-17; Œuvres Choiesies, 89).

Gure artean horren modan dagoen marxismoa, beraz, hein batez bederen, ideologikoa da; eta *ez gure beharrek sortua eta zabaldua, kanpotik eta kanpoko eragilek erakarria baizik*. Hots, hauxe da Marx-ek « ALIENAZIOA » zer den azaltzeko ematen zuen azalpena!

Baina, jakina, marxismo-mota horrek ba du abantail bat: gure ekintza « razionalizatu » egiten duela, « adimentzen » esan dezagun, eta lasaitzen beraz. Baina, Lacan-en hitzaz esateko, « le plus corrupteur des conforts est le confort intellectuel » (Ecrits, I, 211).

## BIGARREN TESIA :

I HARDESPEN ZUZENIK EMAN EUSKAL EZKERRARI  
MARXISMOAK EZIN DIEZAIROKE

Hau bai. Hori, edo horrelako zerbait, esana dut; eta horretantxe nago. Berriz ere, eta N-garren aldiz gorrentzako esateko, kapitalismoaren kritika-rik zorrotzeta Marx-ek egin du: punta horretan denok gara marxista. Kapitalis-

moa uzkaile artean, beraz, guztiz *beharrezkoa* iruditzen zait marxismoa *ere* ikas-  
tea. Nekez proposa nezake nik Euskal Herri kapitalista horren funts ustela ulertu  
nahiz Marx-engana ez jotzea.

Baina ezin gaitzeko horretan geldi.

Alde batetik, gure herrian beste arazorik ere ba dagoelako : batere mespre-  
txagarria ez den *nazio-arazoa* aurrenik. Bertrand Russel-ek ederki zioen behin :  
« Le facteur non économique le plus évident, celui qui, négligé des socialistes,  
les a le plus égarés, c'est le nationalisme. Une fois créée, une nation, bien sûr,  
a des intérêts économiques qui déterminent en grande partie sa politique. Mais  
en général *ce ne sont pas les mobiles économiques* qui décident quel groupe  
humain formera une nation » (Pratique et Théorie du Bolchevisme, 120).

Eta, bestetik, marxismoaren arabera eraiki diren erresumetan oso feno-  
meno larria gertatu delako : BUKROKRAZIARENA. Erresuma urtu eta desegin  
beharrean, gogortu egin da.

Marxze gerozkoak direlako, harek ezaqutu ere ez zituen jakintza-adar  
garantziatsu batzuk : psikanalisia, estrukturalismoa, zibernetika, biologia berria,  
errelatibitatea, quantazko fisika, eta abar. Marxi darion zientismoak zahar-kutsu  
izugarria du.

Marxen iraultza, bestalde, ez da obratu burgesi azkarra duten herrietan,  
burgesirik ez dutenetan baizik ; langileria ez da mugarrik gabe txirotu ; abertzal-  
etasuna ez da batere ahuldu munduan ; burgesia erazuta ere, stalinismoa sortu  
da, zanpatzaile nagusi ; eta abar. Marxismo ortodoxoan gelditzea, horretara, dog-  
makeria itsua litzateke ; eta horrela iokatuko lukeen euskal ezkerria galdutzat  
eman liteke jadanik. Aspaldidanik esana dut, eta berriz esango dut gaur, ni  
« post-marxista » naizela. Edgar Morin « meta-marxista » den bezalatsu ; eta  
nekez izan daitekeela gaur besterik.

Sozialismoak BI etsai ditu 1976-an, eta ez bakar bat. Kapitalismoa da bat,  
dudarik gabe ; eta hau onartzen duten sozial-demokrazia eta antzekoak ere bai.  
Baina BUKROKAZIA da bestea. Helburu eta jokahide NAGUSITZAT *autojestioa*  
*fedo* autokideantza. Oihanburu-ren hitzaz esateko) hartzen ez duen alderdiak, EZ  
DAUKA ERRESUMA-KAPITALISMOA BAIKIK EKARTZERIK. Baina burgesiaren  
bukrorazia kendu, eta honen ordeaz P.C.-arena jartzea, *ez da iraultza*.

Autojestioa, horretara, *pratika eta enpirismo* hutsa den aldetik (noiz ipar-  
tartuko ote gara qu, euskaldunok, aspaldian hain enpiriko izanak !), ezinbesteko  
oinarriztat hartu behar du ezkerrek ; batek edo bestek « retour à Proudhon » hau  
gaizki hartuko badu ere.

Marxismoa ez da aski. Marxistek berek aitortzen dute hau gaur : « Nous  
soutenons que « Le Capital », comme la pensée entière de Marx, est *nécessaire*  
pour comprendre le XX<sup>e</sup> siècle, *mais ne suffit plus.* » (H. Lefèvre, L'Idéologie  
Structuraliste, 227).

Beste ezkerter batzuk aurrerago doaz. Hau ez luzeegi egiteko hiruzpalau  
etsenplu emanqo dut bakarrik.

Hau idazten zuen K. Korsch-ek 1950-ean : « Toutes les tentatives de réta-  
blir la doctrine marxiste comme un tout et dans sa fonction originelle de théorie  
sociale de la classe ouvrière, sont aujourd'hui des utopies réactionnaires ».  
(Arguments, II, 21 ; Coll. 10/18).

Eta 1976-ko Maiatzean hau idatzi du Edgar Morin soziologoa : « Le mar-  
xisme n'a pas eu les outils pour expliquer la nation. Bien plus, il s'est moulé,  
coulé, dans l'Etat national. Le marxisme était lucide sur la fausse unité que  
constituait la nation, masquant les antagonismes de classe ; mais il était aveugle  
sur le fait que cette unité pouvait se transformer en vraie unité. De même le  
marxisme est aveugle sur la réalité de l'Etat, il est aveugle sur la réalité du  
Parti, ce qui est grave quand la plupart des nations modernes sont sous régime  
de Parti unique. Il est aveugle sur la jeunesse, sur la vie ; il est aveugle sur  
toutes les réalités qui se développent à l'Est, au Sud, à l'Ouest, et qui deviennent  
dominantes. Voilà pourquoi de *révolutionnaire en une phase précédente, le  
marxisme devient réactionnaire*. Il camoufle et prépare de nouveaux pouvoirs,  
qu'il prétend accorder à la classe ouvrière, laquelle, une fois ce pouvoir installé,  
parlera toujours par la voix du Parti ventriloque. » (Morin, Magazine Littéraire,  
n° 112, 13. orr.).

Morin-en ideietatik urrun den Benoist ondorio berberetara iristen da bere izkribuetan (ikus « Marx est mort » bereziki, Coll. Idées, 1970).

Hil berria den Monod Nobel-Sariak hau zioen : « Le seul espoir du socialisme n'est pas dans une « révision » de l'idéologie qui le domine depuis plus d'un siècle, mais dans l'abandon TOTAL de cette idéologie » (Le Hasard et la Nécessité, 194).

Eta Georges Friedmann soziologilaria famatuak, behinola, Morin eta Fougeyrollas bezala P.C.-an egona, hau dio : « (il faut une prise de conscience) à travers une critique lucide, déchirante, des insuffisances, des erreurs de la Vulgata marxiste, prise de conscience des dangers dont les germes, je le crains, se trouvent dans la pensée même de Marx, certainement dans celle de Lénine, et que les expériences staliniennes aussi bien que maoïste ont révélés avec éclat ». (La Puissance et la Sagesse, 277).

## HIRUGARREN TESIA :

MARXISTA EZ DEN EUSKAL EZKERRAK LEHENTASUNA  
EMATEN DIO NAZIO-ARAZOARI. HAU BURGESKERIA DA.

Ni honetan nago, egia da ; eta ez naiz marxista.

Jarrera berean dago Memmi : « Kolonikuntza — esan dut — politikazko eta ekonomiazko uxtiakuntza bat da ». Baina hau re erantsiz : kolonikuntzan ez dagola klaseen arteko harremanik, herrien arteko harreman bat baizik. Eta, hain zuzen ere, hauxe dela koloni-zapalketaren ezagugarri berezia » (Kolonizatuaren ezagugarria, 13 ; Jakin-Sorta).

Baina gogorrena hau da : MAO BERA ERE irizkide dugula honetan : « Il en va autrement de la Chine, qui est victime de l'agression. C'est pourquoi les communistes chinois doivent unir le patriotisme et l'internationalisme. Nous sommes à la fois des internationalistes et des patriotes, et notre mot d'ordre est de combattre pour la défense de la patrie contre l'envahisseur » (Livre Rouge, 194).

Edo-ta beste izkiribu hontan : « Dans le cas d'une guerre d'agression lancée par les impérialistes contre un pays, ses différentes classes, à l'exception de la petite clique de traités à la nation, peuvent s'unir provisoirement pour mener la guerre nationale contre l'impérialisme. Dans ce cas la contradiction entre l'impérialisme et le pays considéré devient la contradiction principale ; et toutes les contradictions entre les différentes classes à l'intérieur du pays (y compris la contradiction principale entre le régime féodal et les masses populaires) reculent provisoirement au plan second et n'occupent qu'une position subordonnée ». (Mao, A propos de la Contradiction, 42).

Bere irizpide hauen arabera, nazio-elkarteak eraiki zuen Maok. Txan Kai Txek-ekin, txinatar eskuindarrekin beraz. Eta japondar zapalketaren aurkako burru-kari eman zion lehentasuna.

Hau defenditzen ez duen teoria oso ezaguna da : SOZIAL-INPERIALISMOA ; « felipada » herriaren ahotan. « Izarreko »-ren « sozialismoa », noski, bete-betean sartzen da sail horretan.

Ez nau horrek bakarrik larritzen « Izarreko »-rengan, dena dela, haren stalinismoak baizik ; ez baitu eskas stalinismoaren aldeko joera.

Alde batetik, harriarria da Errusiako herri zapatuak (eta Txekoslovakia-koak, eta abarrez) «Izarreko »-k hitzik ere ez esatea. Nola ote liteke 40 miliun bitima eginak dituen erregimen horrek, sustatzen duen marxismoari buruz kezkarik batere ez sortzea ? Ezen Moskuko gobernuak, zernahi esanagatik ere, marxista da ; eta berriki Sartrek deklaratu duenez, funtsean marxista baita egiazki ; eta bertako Komunista Alderdia III. Internazionalerako Komunista Alderdi guztien buru-

zagia baita. Hala ere, bai. Maurice Clavel-en hitzaz esateko, gure « Izarreko » hau, beste anitz bezala, « à plat ventre » ahozpeztu da marxismoaren aurrean, « a avalé Marx en hostie » (Morin) ; eta oraindik ez du entzun ere nahi Bertrand Russel-ek, esate baterako, 1920-az geroztik somatu zuena : « A mon avis, voici ce qui probablement se passera en Russie : *une aristocratie bureaucratique tiendra tout le pouvoir en main, et créera un régime aussi tyranique et cruel que le capitalisme* ». (Pratique et Théorie du Bolchévisme, 135 ; 1920-an argitaratua !)

1968-ko maiatzean buruzagi izan zen A. Gluksmann-ek hau idatzi du berriki eta guztiz bide beretik : « Si Soljénjtsine est mal reçu en Occident éclairé, ne serait-ce pas que nos féeries son-et-lumière sont *vieillies d'un demi-siècle* ? Nous n'avons pas encore réfléchi sur ce qui fait du marxisme *l'âme d'un régime sans âme*, et de sa raison la raison d'Etat, et de son efficace l'arme d'un Empire... Nous oublions que des têtes ont été tranchées et se sont laissé trancher au nom du marxisme » (La cuisinière et le mangeur d'hommes, 41). Eta aurrerago : « L'ensemble de nos académies s'accordent à nommer socialiste le plus grand Etat esclavagiste du siècle... Notre amour pour les définitions savamment théoriques est directement proportionnel à notre mépris pour les souffrances de la plèbe russe et à notre ignorance voulue à sa résistance » (Liburu berean, 96).

Ba dirudi, bestalde, « Izarreko »-k, ene sozialismoa harena ez delako, eta stalinismoaren bidetik, *isil arazi nahi nindukeela* : « hobe luke hizkuntzaren mailan ihardun ».

Ene iritzia, halere, ez da BATERE BITXIA : Frantzian, esate baterako, nik bezalatsu ikusten dute sozialismoaren helburua C.F.D.T. sindikatoak, P.S.U.-ak, eta P.S.-aren barruan Chevènement-en taldeak ; baita neo-anarkistek, eta anitz eta anitz ezkertar intelektualek. Irudimen txikikoa naiz : hori guztia pitin bat irakurriz ikasi dut, ez neure gisara bitxikeriatan jolastatzen ariz. Hots, C.F.D.T.-ak, P.S.U.-ak, neo-anarkistek, sozialista anitzek, eta abar, isildu behar badute, *stalinismoa* proposatzen digu « Izarreko »-k.

Nik ez dut, dena dela, « Izarreko » hizkuntza-arloez edo literatura-arloez bakarrik ardura dadila eskatuko. Niri behin eta berriz proposatzen didate bide hori stalinistek : harrigarria da nola maite duten stalinistek ene literatura-dohaina, eta zein gutxi berriz euskal idazleek eta ene adiskide anitzek !

Neure irizpideetan funtsaturik, « Izarreko »-ri politikaz arduratzeko esku-bidea defenditzeko gertu nago, bai gaur bai geroan ere ; nahiz batere ados ez izan gauza askotan.

Hauxe da, hain zuzen, sozialiston artean dugun liferentzia nagusia.

TXILLARDEGI.  
(1976-VI-22).